



# Agiri Politikoa

---

## Batasuna eta Indarra

**IRUÑEA 2016**

**Batasuna eta Indarra**

***VII. Batzar Nagusia  
2016ko otsaila***

## AURKIBIDEA

*Orr*

<b>Sarrera.....</b>	<b>3</b>
<b>1.- Nondik gatoz? .....</b>	<b>6</b>
1.1. Indarkeriaren amaiera.....	6
1.2. Bazterketaren amaiera.....	7
1.3. Erakundeen indarra.....	7
1.4. Aldaketa garaia. Nafarroa .....	8
1.5. Iparraldea eta “Euskal euroerregioa” .....	8
1.6. Espainiako krisia .....	10
1.7. Catalunya.....	11
1.8. Krisia Europar Batasunaren baitan.....	12
<b>2.- Zer dugu zain?.....</b>	<b>14</b>
2.1. Gizartearen agindua. Bakea eta Bizikidetza .....	14
2.2. Denborak kudeatzea. Espainiar estatua birformulatzea.....	16
2.3. Legebiltzarraren agindua. Autogobernuari buruzko lantaldea.....	18
<b>3.- Euskadirentzako Estatus berriaren oinarriak – Erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzea.....</b>	<b>20</b>
3.1. Ibili bai, baina norantz? .....	20
3.2. Erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzea.....	23
3.3. Estatus berrirako abiapuntuak .....	24
→ Partekatu beharreko konpromisoak.....	25
→ Estatus berriaren ezaugarri nagusiak .....	26

## SARRERA

EAJ-PNV Batzar Nagusi berri honetara dator hurrengo lau urteotan burutuko duen jarduketa politikoaren ildo nagusiak finkatzeko xede irmoarekin. 1977 urtetik aurrera eta gaur egunera arte Alderdi hau planteatu zaizkion erronka guztiak identifikatuz joan da, une bakoitzean erronka horiek guztiak gainditzeko urratsak emanez eta beharrezko jotzen ziren erabakiak hartuz. Lan hori egin dugu beti "Euzko Alderdi Jeltzalea Euskal Herriaren biziraupena lortzeko bitarteko gisa sortu zelako ikuspuntuarekin" (2007ko Txosten Politikoa). Eta "esparru horrek beren izate nazionalarekiko eta errealitate historiko, kultural eta linguistikoarekiko egiazko errespetua barne hartzen du, beren etorkizuna zehazteko duten eskubidea, beren barne artikulazioa eta kanpo harremana" (2007ko Txosten Politikoa)

Une politiko bat ezin da beste batekin alderatu, ezin baita berdina izan. Denak etorri dira exijentzia eta zailtasunez josiak, eta bakoitzari erabakimen eta zuzentasun osoz ekin behar izan diogu. Oraingo egoerak, 2016 eta ondorengo urteon gainetik jarriko zaigunak, zalantza eta inkognita handiak uzten dizkigu mahai gainean, eta inkognita horien mende egon daiteke euskal herritarren hurrengo belaunaldi zati handi baten etorkizuna. Ezberdintasunak alde batera utzita, aurrez aurre aurkezten zaizkigun erronkek eramaten gaituzte gogoratzera frankismoak demokrazia ahul eta tutoratuari bidea eman zion une historiko hura, zeinetan den-dena diseinatzeke eta eraikitzeke baitzegoen.

Alderdi honek, diktaduraren 40 urteko tuneletik irten zenean, Iruñean egin zuen bere lehen Batzar Nagusia Batasuna eta Indarra goiburupean, aldi berria eraikitzeke oinarriak ezartzeko. Pertsona batzuk, ikuspegi politiko militarrek gidatuta, gu borroka ezberdinak bateragarri egiteko estrategiara eramaten saiatu ziren. Estrategia haren ondorioz egin daitekeen balantzea laburbilduz esan daiteke, berrogei urte geroago, estrategia hori porrota izan dela eta naziogintzari aurrera egiteko oztopoak jarri dizkiola.

EAJ-PNVk Euskal Nazioa egunez egun eraikitzeke ildo politiko mailakatua aukeratu zuen. Urratez urrats. Inoiz ere helmuga ahaztu barik, baina bidean lortzen ziren garaipenak finkatuz. Iruñeko lehen batzar hark (1977ko martxoan), zeinetan errepublika, guda eta erbestea bizi izan zuten pertsonalitate politiko batzuek parte hartu zuten, 4 txosten onartu zituen: politikoa, sozio-ekonomikoa, antolakuntza eta kultura eta, horrez gain, gure norabidea finkatu zuen. Demokrazia, giza eskubideak eta autogobernua. "Askatasuna, amnistia, autonomia estatutua". Euskadiren askatasuna zentimetroz zentimetro irabazteko hartu genuen bideak ekarri gaitu orain ezagutzen dugun herrira. Herri instituzionalizatua, bere herrialde esparruaren zatirik handiengan, bere baliabideak kudeatzeko gaitasuna duena. Hizkuntzaren ezagutzak bizi izan zuen atzerakada geldiaraztea lortu duen eta bere normalizazio eta hazkunde prozesu batean jarri duen gizartea, esparru bakoitzean (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) ezarpen ezberdina izan duen

arren. Herri modernoak gara. Giza garapen iraunkorra dugu. Lehen postuetan aurkitzen gara bizitza kalitatean, berrikuntzan eta gizarte zerbitzuetan. 1977 urtean gure buruari ezarri genion helburua lortu dugu, Herri gisa dagozkigun eskubideak berreskuratzeko bidean eman beharreko urrats gisa, eta horretaz harro sentitzen garen arren, jakin badakigu oraindik lan handia geratzen zaigula.

Baina, estrategia haren emaitza pozgarriak baditu bere etsipen esparruak ere. Arazo eta eragozpen horiei guztiei aurre egin beharko diegu orain arte lortutakoa finkatzeko eta helburu eta xede dugun nazio eraikuntza prozesuaren gainean diren mehatxuak gainditzeko.

Trantsizio garaian EAJren helburu politikoak izan ziren askatasun sistema berreskuratzea eta finkatzea eta 1936an lortu zenaren mailan edo gorago egongo zen autonomia estatutua eraikitzea. EAJk bere jarduketa politikoa abiarazi zuen Espainiar Estatuarekiko elkarbizitza akordioa bilatzeko xedearekin. Elkarbizitza-ituna izango zen, elkarrekiko lankidetzaren marko baten barruan euskal erkidegoari bere burua gobernatzeko eskubidea aitortuko ziona.

1978ko Espainiar Konstituzioa egin eta onartu zutenek ez zituzten onetsi euskal abertzaletasunaren aldetik euskal lurraldeek 1839 eta 1876 urteetako lege indargabetzaileen aurretik izan zuten burujabetza aldarrikatzen zituzten planteamenduak. Euskal abertzaletasunak "foruak osorik berreskuratzeko" egin zuen aldarria gutxituta geratu zen lege indargabetzaileak indargabetzean –eta hauen konplexutasuna eta dotrina-azterketa arakatu gabe daude oraindik– eta horren ordean etorri dira aldi baterako xedapen bat –laugarrena– Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan integratzeko prozeduraren salbuespena ezartzen duena, eta foru lurraldeen "eskubide historikoak" aitortzen zituen xedapen gehigarria.

Baina, "babes eta errespetu" horrek atea irekita uzten zuen foru erregimenaren "eguneratzerako" Konstituzioaren beraren eta Autonomi Estatutuen markoan.

Gentozen egoeratik etorrira eta, Konstituzioaren testuarekin erabateko desadostasuna erakutsita ere, EAJ-PNVk abstentzioa bozkatzeko erabaki zuen. Gure Herriak eta gure nazio egitasmoak arnasa hartu beharra zuten.

EAJ-PNVk Autonomi Estatutuan aurkitu zuen Euskadi subjektu politiko gisa aitortua izateko formula (1 eta 2 artikulua)<sup>1</sup> eta bere eskubide historikoen eguneratzea ezarri zuen (Xedapen Gehigarri Bakarria).

---

<sup>1</sup> **1. art.-** "Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da; eta Konstituzio eta Estatu honetan adierazten direnak izango ditu oinarritzko instituzio-arautzat."

**2. art.-** "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak eta era berean Nafarroak ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren partaide izateko eskubidea dute."

**Xedapen Gehigarria (Bakarria).**- "Estatutu honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari herri gisa historian barrena dagozkiekeen eskubideei uko egiten zaienik..."

1979ko Estatutua, edo Gernikako Estatutua, izan zen, azken finean, EAJ-PNVk, Francoren diktaduraren ondoren "Euskadirentzako egitasmo politiko propioa eraikitze" xedez ezarri zuen lehen "tarteko geltokia" ezartzeko erreferentzia.

EAJ-PNVren dotrina bere txosten politikoetan jasota dago. Agiri honek berresi egiten ditu 2004 eta 2007ko Batzar Nagusiek onartutako testuetan ezartzen diren printzipioak. "Euskadi subjektu politiko gisa aitortua izatea bilatzen dugu, erabakitzeko eskubidearekin, Espainiar eta Frantziar estatuen mendeko estatus politiko era administratiboa gaindituz". "Halaber, Euskal Nazioaren aitortza politiko era juridikoa aldarrikatzen dugu eta, berdintasun osoz, beste nazioen maila berean egon dadin".

Agiri honen helburu nagusia da, azterketa estrategiko gisa, EAJ-PNVk epe labur eta ertainean izango dituen erronkak planteatzea. Egoera politikoaren diagnosis egitea eta, indarrean dauden txosten politikoetan ezarritako printzipio ideologikoak aplikatuz, VII. Batzar Nagusitik eta 2020 urtean garatuko denaren artean burutuko dituen ekimenak aurreikustea.

## 1.- NONDIK GATOZ?

2007an amaierara hurbiltzen hasiak ziren ziklo politiko, ekonomiko eta sozialez hitz egin genuen.

### 1.1.- Indarkeriaren amaiera

Lau urte igaro dira ETAk "behin betiko su etena" iragarri zuenetik. Orduetik aurrera, euskal gizarteak garai berriak eta orain arte ezezagunak bizi izan ditu indarkeriarik gabe. Gertakari hau berez da garrantzitsua, mesprezatu ezin dugun on gorena. Baina bakea ez da soilik indarkeriarik eza.

Indarkeria zikloari amaiera emateko erabaki irmoak berarekin ekarri beharko zituzkeen gure historiaren zati tragiko hau gainditzeko eta egoera berria finkatzeko hainbat gertakari. Orrialde berria idazteko, ezinbestekoa da aurreko orrialdea behar bezala ixtea, ikasgai izan beharko dugun iragan mingarriaren ondorioak gaindituz, hemendik aurrera, euskal herritarren belaunaldirik ez dadin egon Herri honek bere osotasunean pairatu duen sufrimenduaren pean.

Ezker Abertzaleak interpretatu zuen ETaren jarduera armatuaren behin betiko amaieraren ondoren "prozesu" bat irekiko zela Espainiar Gobernua eta ETA erakundea neurri berean konprometituko zituen prozesu eta ekimenekin. Baina, "prozesu" hura batzuen irudimenean baino ez da existitu, Espainiar eta Frantziar gobernuek ez zutelako onartu estrategia polizial eta judizialetik harago doan beste dinamikarik. Jarrera horrek ETaren inguruan paralisia eragin du, borroka armatua bertan behera uzteko lehen erabakiaren ondoren hartu beharko ziratekeen neurriak eta erabakiak hartzeko prozesuan. Konpromiso hura alde bakarrekoa izan bazen, alde bakarreko izan beharko lukete hasierako urratsa finkatzeko eta betikotzeko neurriek. Erabateko armagabetze baldintzarik gabe eta egiaztagarria, egindako mina aitortzea eta erakundearen desagerpena lortu gabe ditugun gaiak dira, eta horiek izango dira gure iraganaren ziklo suntsigarri honen amaiera egiaztatuko dutenak. Horien artean aurreikusi beharko dira ere, terrorismoa jazartzeko eta borrokatzeko diseinatu zen salbuespen legeri guztia indargabetzea, gaurko inguruabarren arabera presoak gizarteratzeko beharko den espetxe araudia eta segurtasun eta elkarbizitza politikoaren lege xedapenak.

"Indarkeriaren behin betiko amaieraren" ondoren, ETaren amaiera ordenatua eta bere jarduketa kaltegarriaren ondorioen amaierari ekitea dagokien eragileek erakutsi duten paralisiaren aurrean egon da erakundearen ekimena, proposamenak etenik gabe aurkezten aritu izan direlarik, eta bereziki Eusko Jaurlaritzak. Bake eta Bizikidetzak plana, oroimenari

lotutako ekimen ugariak, biktimen aitortza eta ordaina, indarkeria deslegitimatzeke ekimena, armagabetzeko proposamenak, presoak gizarteratzeko proposamena (Hitzeman), lege salbuespena ezabatzeko ekimena (Zuzen Bidean)... izan dira mahai gainean jarri diren alternatiba bakarrak, euskal gizarteak exijitzen duen garai berriari ekiteko orduan nagusi izan diren blokeoaren eta konpromisorik ezaren aurrean. Politika aktibo honek oraingo bidean segitu behar du mugitu behar dutenak mugi daitezen eta behin betiko bakea gure artean finkatu dadin.

### **1.2.- Bazterketaren amaiera**

Ezker Abertzalea ordezkatzeko zuten sigla ezberdinak ilegalizatzeko prozesuek, euskal egituraketa elektoralaren mozketak onartezinaz gain, PP eta PSOE alderdiek euskal politikaren elementu guztiak kontrolatzeko partekatzen zuten estrategia garatzea ekarri zuten.

Bazterketa politikoaren amaierak eta herritarrek hautestontzien bidez adierazi zuten borondateak EH Bilduri hainbat erakunde esparrutan gobernatzeko ateak ireki zizkioten. Geroago etorri zen EAJ-PNVk Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaritza berreskuratzea, 2012ko hauteskunde autonomikoetan bere lehengo lidergoa eta ordezkari maila lortu zuelarik, batez ere 2015eko udal eta foru hauteskundeez geroztik.

Lau joera politikok osatutako euskal esparru politiko hark ez zuen luze iraun. Europar hauteskundeez gurean ere agerian utzi zuten "politika tradizionala" izenez ezagutzen denarengandik ematen hasia den urruntzea. Espainiar estatuan hainbat arrazoiren eraginez areagotu den konfiantza krisia –ustelkeria, depresio ekonomikoa, langabezia, erakundeengandik urruntzea...– "politika zaharra" auzitan jartzea ekarri zuen. Hartara, sistema bera auzitan jarri zuten aukera berriak agertu ziren. "Haserrea" plataforma politikoetan egituratu zen eta indar berriak hauteskunde mapan sartu ziren indar handiz. Espainian ordura arte gobernatu zuen alderdi-bitasun politikoa neke eta haustura zeinu argiak ematen hasi zen.

### **1.3.- Erakundeen indarra**

Hego Euskal Herrian sozialista eta popularren krisia areagotu zen, gizarte esparrua eta hautestontzien babesa etengabe galtzeko joera batean. Alderantziz, EAJ-PNVren abertzaletasuna indartu egin da Herriko erakundeen egonkortasunari eustearren akordioak lortzeko kulturaren balioa azpimarratuz eta krisi ekonomiko garaian gobernuan zeuden alderdiek herriaren babesa galdu zuten aldi hartako joera apurtuz. Euzkadin EAJ-PNVk bere indarra erakutsi zuen eta 2015eko udal eta foru hauteskundeez orain arte erakundeetan lortu den ordezkari mailarik gorena utzi digute. Euskal Autonomi Erkidegoan, Euzko Alderdi jeltzaleak 120 alkate, 1.017 zinegotzi, Batzar Nagusietako 54 ahaldu, hiru Foru Aldundiak –eta hiru Foru Ahaldu Nagusiak–, Eusko Legebiltzarreko 27 legebiltzarkide, Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaritza lortu zituen eta Donostiako eta



Gasteiz-Vitoriako alkatetzak berreskuratu zituen. Halaber, gorte orokorretan ordura arte zuen ordezkaritza handiagoa lortu zuen hauteskunde kanpainan hedabideetan eman zen politizazioaren gainetik. Dena dela, lana egon badago egiteko.

#### **1.4.- Aldaketa garaia. Nafarroa**

Garai berri honek, gainera, esparru esanguratsu bati eragin zion bereziki: Nafarroa.

Erresuma Zaharrean azken urteotan bizi izan den zatiketa politikoa UPNren narriatze prozesuarekin eta alderdi sozialistak herrialde hartan ematen zen blokeoari benetako alternatibak emateko gaitasunik izan ez duelarik, aldaketa politikoa emateko aukera bat ekarri zuen. Zerumugak irekitzea eskatzen zuen aldaketa. Nafarroaren kultura-aniztasunaren aurrean, gizartearen aniztasun eta pluraltasunaren kontra eraiki ziren harresiak bota behar ziren. Eta derrigorrez ezarritako homogeneotasunaren aurrean egitasmo inklusiboa egituratu beharra zegoen, egitasmo irekia eta penduluen mende egongo zen dogmatismorik gabe. Terrorismoaren desagerpenak ere aldaketaren sinesgarritasuna elikatzen zuen. Kudeaketa publiko ezin okerragoaren, elkarrizketarako borondaterik ezaren eta ordura arte gobernuan egon zen alderdiaren barruko krisiaren ondoren, alternantzia politikorako ateak zabaldu ziren, Nafarroan aldi berria irekitzeko aukera.

Aukeren leiho hori Geroa Baik zabaldu zuen. Borondate ezberdinak batzen dituen abagune politikoa. EAJ-PNVk erabakimen osoz bultzatu zuen borondateen baturaz sortu zen aukera politikoa. Geroa Baik bidea zabaltzea lortu du eta, zailtasunak zailtasun, egitasmo baten inguruan etengabeko adostasuna lortzea eta denboran irautea helburu izango zituen gobernu ekintzari eutsiko zioten lau talde batzea ere bai.

Horrekin guztiarekin ere gure esperientziak erakusten digu eszenatoki politikorik ezin dela finkatutzat jo, ezta epe laburrera ere. EAJ-PNVk apustu irmoa egiten du GEROA BAI ekimenaren bultzadaren alde, Nafarroan egitasmo bultzatzaile eta ilusio sortzaile den heinean. Nafarroako herritargoaren beraren borondatean sostengatuko den aldaketa.

#### **1.5.- Iparraldea eta "Euskal euroerregioa"**

Ahalke bada ere, Iparraldean ere Iparraldeko euskal herrialde guztiak barnean hartuko dituen eta soilik euskal esparrukoa izango den erakundea osatzeko urratsak eman dira.

Gure alderdiak, EAJ-PNBk, Euskal Elkargoa sortzeko aldarria egin zuen baina, zoritxarrez, atzeratuta geratu zen Frantziako gobernu zentralak erakutsi zuen etsaitasunagatik. Une honetan Elkargo eta Mankomunitate guztietako hautetsien artean eztabaidatzen ari dira horiek denak bateratuko dituen Erakunde berezia sortzea, Iparraldeko herrialde eremu osoa hartuko lukeena.

Gure hautetsiek babes handia eman diote ideia horri, etorkizunera begira instituzionalizazio handiago baten abiapuntu ona izan daitekeelakoan.

EAJ-PNBrentzat oso garrantzitsua da Iparraldean euskal erakunde bat izatea, Europar Batasunak gaur egun mugaz gaindiko harremanetarako ematen dituen aukerak ahal den mailarik handiengan baliatu ahal izateko. Lankidetzaz hori sakonagoa eta handiagoa izan daiteke Nafarroako Gobernuarekin. Erresuma Zaharrean eman diren aldaketek eta Iparraldean hasi berri den dinamika politikoek "euroerregiora" hurbiltzen gaituzte, hau da, "Euskararen Lurralde" guztiak batuko gaituen erakundera, garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzen laguntzeko eta euskal nortasun eta kulturaren sakontzeko eta euskara sustatzeko.

2012 urteaz geroztik, Iparraldeak urrats berria eman du bere nazio kontzeptu eta kontzientzian.

Berrikitzen, deserdiratze izenez ezagutu denaren etapa berria eman da erregioentzako eskuduntza berriak zehaztearekin batera, Aquitaine-Poitou-Charentes-Limousin (Bordele, hiri nagusi bezala) erregio berrian gertatu bezala, eta parada berriak sortu dira Iparraldearentzat.

Garai honetan, EAJ-PNB erabat konprometitu da Iparraldeko Lurralde Elkargoaren alde, "euskal zentrista" hautetsi talde bat bilduz, Alderdiaren inguruan. EAJ-PNBk lan egin du ere Garapen Agentzia eta Energi eta Klima Agentzia baten alde. Ekimen berezi bat eraman du "Euskararen Lurralde Estatutu" baten alde.

EAJ-PNBk ia hauteskunde guztietan parte hartu du, zerrenda edo hautagai abertzaleak aurkeztuz: Frantziar Senatutarako 2011ko hauteskundeak, Parlamentua aukeratzeko 2012ko hauteskundeak, 2014ko Udal eta Europar hauteskundeak. Gaur, EAJ-PNBk hogeitabat kargudun hautetsi dauzka Iparraldeko hiru lurralde historikoetan, Angelu, Donibane Lohitzune, Urruña bezalako hirietan, eta Ezpeize, Makea, Arrosa, Uharte Garazi, Donibane Zahar bezalako herrietan.

EAJ-PNBk bere tokia lortu du Iparraldean. Une honetan irudi baikorra eta egiazko sinesgarritasuna dauka bere alde, bereziki bere ekimen politikoaren bidez eta bere tokiko hautetsien lanagatik. EAJ-PNBk bere tokiko errotzea indartu behar du jadanik nahiko errotuta dagoen lurraldeetan (Hego Lapurdi) eta hazkunde nabarmen bat ezagutu duenetan (Baiona, Baxe Nafarroa).

Politika arloan, lehentasunen lehentasuna tokiko egiazko boterea litzateke, "Iparraldeko Elkargo bakar" batekin, Estatuaren ekimenetik abiatuta erakunde berean 158 herriak eta mankomunitate bakar batuz.

"Elkargo bakar" hori sortzen bada, Iraultzaz geroz Iparraldeak, lehen aldikoz, bere erakundea lortu lezake. Iparraldea, herrialde berriaren bigarren "elkargoa" litzateke. EAJ-PNBk elkargo horren kudeantza on bat lortzea helburutzat dauka, bere hautetsien bidez,

baina ere lankide hobereana izanez, EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoarekin, eta euskal Euroerregioaren hirugarren zutabe bilakatuz (Zazpiak-Bat).

EAJ-PNBk Iparraldeko Elkargo bakarraren boterea indartzeko egitasmo garrantzitsuenak eztabaida publikoan defendituko ditu: Euskararen Lurralde Estatutua, Garapen ekonomikoaren Agentzia, Klima eta Energiaren Agentzia eta zerbitzu publikoen plataforma.

EAJ-PNBren ustetan Iparraldeko "Elkargo bakar" hori da Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoa sartu beharko direnak, horretan daudelako gure nortasunaren bermeak. Beren kokapen geografikoa bizigune eta hurbilezko lurralde osagarriak biltzen ditu, elkargoa osatzeko egitasmoan ere kontuan hartu ahal izan daitezten.

Iparralde eta lurralde historikoen mailako indar berri honek eraginkorra izan beharko du etengabeko desorekaren aurka jarduteko, biztanleria eta errekurtsoak oso kontzentratuta dituen euskal kostalde batekin eta Iparralde barnealdeko zailtasun gehiago daukan batekin.

## **1.6.- Espainiako krisia**

Ageri agerikoa da Espainiar estatuak bere egituretan pairatzen duen ezegonkortasun politiko, instituzional eta soziala.

Espainiak, azken urteotan, bere historia hurbileko unerik gatazkatsuena bizi izan du. Krisi ekonomiko larriak, ia porroteraino eta europar erreskateraino eraman zuenak, doikuntza sozial eta ekonomikorako ezarri ziren baldintza gogorrekin, langabezian dauden milaka pertsonarekin, enplegu ezegonkorrekin, produkzio egitura desegokiarekin, produktibotasun urriko ekonomiarekin, europar exijentziak gainditzen dituen defizit altuarekin, BPGaren %100aren inguruan dagoen zor publikoarekin eta porrot egin zuen lurralde egituraketa sistemarekin, Espainia bere egituran kalte handiak dituen eta ia baliorik gabe geratu den marka bihurtu du, eta urteak kostako zaizkio lehengo kaudimen eta ongizate maila berreskuratzea.

Krisi honek eragin dio nazioarteko joko eremuan eragina galtzea, ez bakarrik esparru diplomatikoan edo merkatuetan, baizik eta baita Espainiar Estatuak Europar Batasunaren barruan daukan indar erlatiboari dagokionez ere.

Txirotzea ekarri dion krisi honi gehitu zaizkio kontu publiko ahulak hustu dituzten ustelkeria kasu amaigabeak. Espainiako banku sistemak hainbat milioiko erreskatea jaso behar izan du antzinako toki aurrezki sistemaren gainbeheraren eraginez, azken hauetan diru xahutzea eskandalagarria izan delarik.

Baina ustelkeriak kutxa publikoa husteaz gain, herritargoaren konfiantza ere ahuldu du, eta hori da, hain zuzen, azterketa soziologiko gehienetan gizartearen arduren zerrendan

bigarren tokian dagoen gaia. Hortik ere badator erakunde sistemaren krisia. Espainiak, jokaera lotsagarriari publizitatea ematen dion etengabeko jarioaren mende egonda, azken urteotan bizi izan du Estatu Buruaren aldetik orain arte gertatu ez den abdikazioa, Koroari eta bere familiari lotutako eskandalu amaigabeek zipriztindua. Gobernantza krisia arlo pribatuan zein publikoan.

Alderdi guztietatik desegiten ari den herrialde eredua. Horrenbestekoa da ezen autonomia erkidego batzuen aldetik eta horiek gobernatzen ari diren indar politikoen aldetik Estatuak bereganatzea eskatzen duten eskuduntzetako zorren zama arinduko dien birzentralizazioa aldarrikatzen ari baitira. Eta, izan ere, oinarrizko legeri bidez, eskuduntza horiek "harmonizatzen" hasiak dira "Gobernu Zentralak" une bakoitzean erabakiko duenaren mende bizi den autonomien Estatuan.

### **1.7.- Catalunya**

Luzeegia litzateke eta jorratzen ari garen gaitik kanpo geratuko litzateke une honetan catalunyar auziaren sorburua eta zioak aztertzen hastea. Laburbiltzeko esango dugu Espainiarekin daukan borroka horrek bere sustrai sakonak historian dituela eta, Euskadiren kasuan bereziki, auziaren funtsa nazio nortasunaren aldarrian eta Espainiar Estatuaren egituretan ezin moldatzean datzala. Gatazkaren gaiztotzeak azken hamarkadan bizi izan dituen gertakariak azaltzen dute gaur egun auziak bizi duen une goren hau.

Konstituzioa erabiliz Catalunyako parlamentuak –Parlament-ek– onartu zuen Estatut-a zapaldu eta ezerezean utzi izana. Zapalkuntza horren berrespena eta ondoren adierazi den inkonstituzionaltasuna. Aberastasun propioa sortzeko aldarriaren aurrean etengabe ezarri den balantza fiskal negatiboa eta estatuaren aldetik oreka ezartzeko itunari uko egin izana. Estatuko gobernu guztiek autogobernuaren eguneraketarako egin diren eskariei entzungorrena egin izana. Catalunyar nortasun berezia mesprezatzeko egin diren kanpainak. Edonolako galdeketa zilegi eta hitzartuari ezetza eman izana. Edo catalunyarrek Catalunyar Estatu independentea sortzearen inguruan duten iritzia ezagutzeko egin daitekeen edozein herri galdeketaen kontra agertu den jarrera. Errealitate horiek guztiek, nazio sentimendu ukaezinari lotuta, independentzia eskatzen duen mugimendua piztea eragin dute eta, eserleku kopuruari erreparatuta, Estatutik banatzearen aldekoa den catalunyar parlamentua osatzea ekarri dute. Ordezkaritza demokratiko eta zilegia produzitu da arazoaren konponbidea, politikan baino, legea zorroztasunez betetzean datzala pentsatzen dutenen gelditasunaren aurrean.

EAJ-PNVk Catalunyar Parlamentuak hasitako prozesu politiko eta demokratikoa errespetatzen eta aitortzen du, catalunyar herriaren gehiengoaren borondatearen adierazpena den neurrian, Catalunyako herritarrek beren etorkizun politiko kolektiboa erabakitzeke duten eskubidea baliatzeko helburua duen egitasmo gisa.

### **1.8.- Krisia Europar Batasunaren baitan**

Europar Batasunak garai latz eta larria bizi du une honetan, are indar handiagoz 2007an sortu zen apurketa ekonomiko-finantzarioaz geroztik. Geroago, Europak hainbat ezbairi egin behar izan dio aurre: atzeraldi ekonomiko sakona, ongizate sistemaren kalitatearen uzurtzea, gizarte murrizketak eta langabeziaren gorakada –bereziki gazteen artean eta erdialdeko estatuetan– eta desberdintasun egoerak, Greziako krisia, Brexit (British Exit) delakoa.... Horiek denak dira duela zortzi urte hasitako krisiaren eraginez etorri diren sekulako ondorio txarrak.

Aldi berean, Batasunak azken garai hauetan hainbat atentatu pairatu izan ditu terrorismo yihadistak eraginda, eta mugakide dituen esparruetako gatazka belikoen ondorioak sufritu ditu (Ukrainia-Errusia). Eta baita, nagusiki Ekialde Hurbileko eta Afrikako Iparraldeko eremuan ere. Hau guztia muga guztiak gainditu dituen tsunamia izan da, azken aldi honetan ehunka mila pertsona errefuxiatu europar esparrurantz hurbiltzea eragin duen neurrigabeko ezbehar humanitarioa.

Europar Batasunak, azken finean, bere historia osoan pairatu duen krisirik sakonena bizi du orain. Krisi ikaragarria bere tamaina eta dentsitatean, ardatz ugariarekin eta alderdi desberdinekin: Estatuaren artean –iparralde-hegoaldea, mendebalde-ekialdea tentsio neurrigabea eragin duen krisia, krisiaren errua eskusiboki Batasunari egotzi dion baieztapen demagogikoa, zentralismorantz jotzeko eta estatuaren boterera itzultzeko egin diren apustuak eta, aldi berean, alderdi tradizionalen nolabaiteko gainbeherarekin batera, populismoaren eta euro-fobiaren gorakada sistemaren kontra dauden indar politikoen sorrera eragiten dutenak (muturreko eskuindarrak –Europako iparraldeko estatuak– eta muturreko ezkertiarak –Europako hegoaldeko estatuak–), beldurra eragiteko deiak, Batasunarengandik urruntzea eta hiritarren haserrea.

Testuinguru konplexu honetan, europar batasunaren egituraketaren hutsuneak eta gabeziak antzeman dira. Batasunak ezarritako neurriak partzialak, murrizak eta kasu batzuetan berantiarak izan dira, Estatu batzuen interes partikularrak batasunaren idealaren gainetik eta planteatutako arazoak konpontzen lortu barik egon diren aldi berean eta, horrela, oraingo ereduaren bideragarritasuna auzitan jarritz.

Amsterdamgo Tratatuaren izpiritua berreskuratzea, europar hiritargoaren oinarrizko eskubideen katalogoa ezartzen duena, oinarrizkoa da europarrak izateagatik eta ez Estatu kideetako hiritar izateagatik, eta horrek suposatu izan zuen Lisboako Tratatuaren aurretik egin zen prozesu konstituziogilearen hasiera bertan behera uztea.

Orain bai, agerikoa da Europar Batasunak gure etorkizunerako bidea izan behar duela. Europar Batasuna beharrezko eta eraginkor jo izan da beti, lehen bezala orain ere bada demokrazia, askatasun, giza eskubide eta sozialen mundu mailako erreferentea. EAJ-PNV sustrai historikoengatik batasunaren iragan horri lotuta sentitzen da eta, beraz, defendatzeko hitzemandu ere. Kontzeptu horri eutsi behar diogu. Horixe aktibatu beharko dugu gure lur planetak une honetan bizi duen multipolartasun eta globalizazio eszenatokiaren ondorioz agertuko zaizkigun erronken aurrean.

Xede horrekin, Europar Batasunak bide orri berria bereganatu behar du, oraingo nazio-estatu eta kide dituenetatik harago doan benetako nazio aniztasuna barnean hartuko duena, Estatuak baino lehenagokoak diren eta errealitate politiko eta bizitza esparru diren europar herri eta nazioak ere aitortuz. Herri berriak aitortzeak ez du berez suposatzen ernegazio handiagoa egotea edo Estatu baten barruan kokatu beharra, baizik eta demokrazia indartsuagoa, herriaren borondatea errespetatuz. Gure ustez bide orri horrek hurrengo printzipio honi eutsi beharko dio: Europa eraginkorragoa eta Beste Europa bat. Europa elkartu eta indartsua, XXI. mende hasiera honek ireki dituen erronka orokorreari aurre egingo diona. Bere nazio aniztasuna eta bere ondare historiko eta kulturalaren pluraltasuna onartuz, krisiari erantzun arin eta eraginkorra emango diona; batasun politiko, ekonomiko eta soziala eraikiz; batasun aurrerakoa, solidarioa, integratzailea eta arduratsua, hain zuzen. Federaltasunerako joera, erakundeen demokratizazioa, batasunean lan egiteko metodoa, gardentasun politikoa, hiritarren parte hartzea bereganatuz, itunetan egin beharreko aldarazpenei ekiteko gero eta batasun politiko sendoagorako bidean. Horiek neurri guztiek europar *demos*a piztuko dute eta europar hiritargoaren hiritartasun sentimendua sustatuko dute.

Orain, 2016 urtean, europar mapak bizi zuen aldaketa erradikalaren XXV. urteurrena beteko da, nazio berriak, autodeterminazio eskubideaz baliatuta, estatu berri bihurtu zirenetik. Sobiet inperioaren eta estatu nazio anitzen gainbehera eman zen testuinguruan, Baltikoko herrietatik Montenegro eta Kosovoraino eta Eslovakia ere tartean, hogeitabat Estatu berri beren nazio askatasuna erdietsi dute, azken mende laurden honetan europar aniztasunaren aberastasuna areagotuz. Errealitate hauek ukatzen dute gure asmo politikoei egozten zaien anakronismoa.

Europar Batasunaren birsorkuntzak mundu mailako izaera duen eta eragile ekonomiko eta finantzarioen exigentziek kutsatuta dagoen krisia konpontzea ekarriko luke, Batasunaren eta europar hiritargoaren bihotza baretuko da eta etorkizun on eta baikorra irekiko da gure Europarentzat. Gure etorkizuna ezin dugu Batasunetik kanpo irudikatu.

## 2.- ZER DUGU ZAIN?

Etorkizun hurbilean biziko duguna jakitea da, behar bada, gure praktika politikoan aplikatu beharko ditugun ildo politikorik zuzenenak ezartzen lagunduko digun gako nagusia. EAJ-PNVren helburu nagusia da herri gisa eragingo diguten gertakariak zer nolako bidea hartuko duten antzematea. Erronkak identifikatzea eta bidean agertuko zaizkigun aukerak baliatzea, nazioa eraikitzeko dugun helburua lortzeko bidean aurrera egiten segitzeko. 1977an bezala, ezinbesteko dugu gaur hartuko ditugun erabakietan asmatzea. Horregatik, hain zuzen, Batasuna eta Indarra aldarrikatu nahi dugu lehen trantsizio hartan bidea argiztatu zigun asmo ekintzaile hura berriro ere geureganatzeko. Iraganekoarekin alderatuta, bestelako trantsizioa izango da, baina ordukoa bezain erabakigarria Euskadirentzat.

### 2.1.- Gizartearen agindua. Bakea eta Bizikidetz

Bake eta Bizikidetzaren esparruan ere aurkitzen gara denbora historiko bien arteko trantsizio egoera batean. Hurrengo lau urteotan, seguruenik, ETaren behin betiko amaieraren lekuko izango gara eta euskal gizartearen bizikidetzaren normalizazio ia erabatekoa ikusi ahalko dugu. Hori da lanerako dugun hipotesia.

Dena dela, prozesu honetan jokoan egongo dena da indarkeriaren amaiera hori ordenatua den ala ez den. Batak eta besteak eszenatoki ezberdinak planteatzen dituzte eta ondorio ezberdinak suposatzen dituzte. Bost hamarkadatik gora luzatu den indarkeria aldiaren amaiera ordenatuak lau osagarri handi ditu nagusiki. Edukia ematen dioten xedeak dira horiek:

- ETaren armagabetze eta desagertzearen izaera atzeraezina, baldintzarik gabea, egiaztagarria eta behin betikoa alde bakarretik egiaztatzea;
- iraganean eragin diren terrorismo, indarkeria eta giza eskubideen urratze guztiei buruzko hausnarketa kritikoa;
- biktima guztiei eragindako min bidegabea ordaintzeko eta aitortzeko konpromisoa;
- bizikidetzara eta gizarteratzera bideratutako espetze politika aktibatzea.

Indarkeriaren *amaiera desordenatuaren* eszenatokiak aurretik jakin ezin diren ondorio ez desiragarriak ditu bizikidetzaren berriztatzailea sustatzeko ikuspuntutik. Etorkizuna zamatzan

du, ziurgabetasun egoera batean kokatzen dituelako terrorismoaren behin betiko amaiera eta aldi berriaren hasiera gertatuko diren momentua. Halaber, kolokan jartzen ditu biktimei eragindako minaren aitortza, bizikidetzarako pedagogia partekatura eramango gaituen oroimena egituratzea edo bestelako espetxe eta gizarteratze politika bultzatzeko aitzakiarik gabeko testuingurua finkatzea.

Bi eszenatoki hauen artean mugituko gara: *indarkeriaren amaiera ordenatua* edo *desordenatua*. Dena dela, bada beste edozein baino garrantzitsua den faktore bat, zeinen presentzia hurrengo lau urteotako errealitate politikoan irmotasun handiagoz aurreratu ahalko den. Bizikidetzaren normalizatuaren aldeko jarrera eta gizarte apustua da. Hori da itxaropen eta ziurtasun faktorerik nagusiena. Bake eta bizikidetzaren prozesuaren atzerazintasunaren aldeko apustua egiteko aukera ematen duen faktorea da. Gizartea eta bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko modua da gaur egun trantsizio horren bultzatzaile nagusiena.

Ezinbestekoa da gizarte gehiengo handien borondatearen eta bere funts etiko eta demokratikoaren interpretazio eta irakurketa egokia egitea. Euskal gizarteak bizikidetzarako bake eta normalizazio politiko eta soziala atzerapenik gabe finkatzea nahi du. Errealitate hau gizarteak egin duen agindua da. EAJ-PNVk bake eta bizikidetzaren esparruan bide orritzat hartzen duen agindua eta Euskadin askatasuna, justizia eta bakea bilatzen duena

2015eko urriaren 31n, lehendakariak gizartearen gehiengoaren borondate etiko eta demokratiko horien isla lau printzipio labur eta argi hauen bidez adierazi zuen: (1) ETaren indarkeriaren legitimazio oro arbuiatzea; (2) bestelako gizarte eskubideen urraketen gutxiesterik ez onartzea; (3) indarkeria ezberdinak elkarren artean justifikatzeko konpentsazio guztiei muzin egitea; eta (4) biktimei arteko diskriminazioak saihestea.

Printzipio hauek, EAJ-PNVren berezkoak direnak eta jarrera gisa betidanik izan dituenak, gure errealitatearen konplexutasunari erantzuten dioten gutxienekoak dira, gizartean ematen diren borondate zabalak dira eta bokazio praktikoa eta pragmatikoa zehatza dute: zoru etiko eta demokratikoaren gainean elkarriketa eta akordio anitzterako prozesuaren hasiera ahalbidetzea, gizartearen aginduari erantzuna emanez.

Printzipio horiek jartzen gaituzte hurrengo lau urteotarako izango dugun **lehentasunaren** aurrean: adostasuna. Zailena da, baina komenigarriena ere bai: bizikidetzarako oinarrizko akordioa lortzea, ahal den aniztasun adierazpenik zabalena hartuko duena. Bizikidetzari buruzko oinarrizko akordio batek suposatzen du, herri honetako familia politiko guztiek iraganari, orainari eta etorkizunari buruz partekatu ahal ditugun gutxieneko oinarri etiko eta demokratikoak ezartzea.

Hauxe da, beraz, eta behin eta berriz esan eta azpimarratu beharra dago, bizikidetzari buruzko gutxieneko akordio bat. Hau ez da gehienezkoen akordio bat. Oinarrizkoa adostu behar dugu, bere kasuan, gainerako guztiaren edo zati baten inguruan demokratikoki eztabaidatzeko. Horien inguruan ahal denik eta adostasun mailarik handiena lortzeko. Zentzu honetan, EAJ-PNVk bere gain hartuko du urratsak ematen segitzeko ardura,



politika esparruan eta legebiltzarrean elkarrizketa eta akordio gunea osatu arte, hurrengo urteotarako bizikidetzak planteatuko dituen erronka estrategiko nagusiak denon artean aztertzeke.

Indarkeriaren amaiera ordenatua ezin da geratu Euskadirentzako estatus berrirako garatu behar den prozesu politikotik kanpo. Atzerapenik gabe eta erabakimenez garatuko den amaiera ordenatuak prozesu politiko argi eta gardenagoa egiten lagunduko du. ETaren amaieraren blokeoa edo amaiera desordenatua txarrerako baldintzatuko duen zama izango da.

Inguruabar hori bereziki kontuan hartu beharko lukete beren jarduketa politikoa gainerako eragileei "dena ala ezer" inposatzeko estrategiak ezartzean oinarritzen dutenek. Aurrerako ihesari ekin beharrean, ekarpen baliotsuagoa egingo lukete beren erantzukizun historikoaren barruan dauden eragozpenak ezabatzeari ekingo baliote. ETA hipoteka bat da gaur egun, edozein prozesu politikoren hedakuntza, txarrerako baldintzatzen segitzen duena.

## **2.2.- Denborak kudeatzea. Espainiar estatuak birformulatzea**

Abenduko hauteskunde orokorren ondoren, Espainiar estatuak aurre egin beharko dio, alderdi-bitasunaren monopolioaren amaierak baino, gehiago absolutuen kontzeptuan oinarritutako politika egiteko modu okerraren amaierak eragindako trantsizioari.

PSOE alderdia 1982an gailendu zenetik, Estatuko talde handien –PP eta PSOE– arteko alternantzia izan da inoiz haize berririk hartu ez duen sistemaren ezaugarri nagusia.

Eraberritza izan ez duen sistemak eragin duen agintekeriak, harrokeriak, legez kanpoko jardueren bidez aberasteak, klientelismoak eta abarrek politikaren eta Estatuan politika egiten dutenen izen ona zikintzea eragin dute, eta biztanleriaren zati handi batek horiek ez ditu zerbitzari publikotzat jotzen, denona den kutxaren arpilatzailetzat baizik. Horrek guztiak krisi ekonomikoaren ondorioei, langabe dauden pertsona andanari, zerbitzu eta prestazioen murrizketari lotuta, talde politiko berrien sorrera ekarri du, biztanleriaren zati handi baten ezinegonak eta haserreak bultzatuta.

Halaber, Podemos taldeak hegoaldean hauteskundeetan izan duen arrakasta ukaezinak –lehen indarra Gipuzkoan eta Araban eta bigarren indarra Bizkaian eta Nafarroan– euskal biztanleria aukera politiko honen alde agertzera eramán duten zioei buruzko hausnarketa sakona egitera eramaten gaitu. Hurrengo hauteskundera begira proposamen honen indartzeari aurre egiten lagunduko diguten giltzarriak aurkitzen lagundu beharko gaituen hausnarketa, hain zuzen.

2015eko abenduko azken hauteskunde orokorrak ere garesti irten zaizkie alderdi hegemoniko tradizionalei. Baina, aldi berean, ez dituzte bete bere burua "Neguko Jauregiaren" ateetan kokatzen zuenaren aurreikuspenak. Alderdi-bitasuna Espainian ez da hil, baina bai azken hamarkada hauetan nagusitu den gobernatzeke modua. PPK eta

PSOEk boto eta ordezkari multzo handia daukate oraindik. Baina urrun geratu dira, jada, gehiengo absolutua lortzeko itxaropenak. Jarrera aldaketa antzematen da, irizpide parte hartzailearen baten etorrera. Orain elkarrizketa eta adostasuna praktikatu beharko dira. Elkar ulertzeko kultura berria. Horren inguruan elkartu beharko dira PP eta PSOE ez ezik, hitzetatik egintzetara igaro beharko duten eragile berriak ere. Batzuei eta besteei dagokie ikastea. Adosteko puntuak bilatzen bizi beharko dute. Inori bere erabakien arrazoirik eman behar ez duenaren harrokeriarik gabe. Esatea eta egitea dagokie. Aukera garaiak datoz. Edo gainbehera garaiak, bestela.

Espainiar alderdi politikoek aldarazpen handiak edo itun handiak egiteko garaia iragarri dute. Eta, horien artean, Estatuaren herrialde egituraketari eta arkitektura politikoari dagozkionak. Konstituzioaren erreforma egiteko aukera agertzen da, baina zein zentzutan egin ahalko den argitu gabe. "Federalismo berriari" ekiteko deiek are nahasmen handiagoa ekartzen diote orain arte zehaztu gabe dagoen eztabaidari. Horren gainetik, argi geratu da Espainiar estatuak, nola edo hala, bere egiturak aldatzeari ekin beharko diola. Konstituzioaren aldarazpen prozesua emango balitz, EAJ-PNVk berriro aurkeztuko luke 2011ko abuztuan Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aitortzan oinarrituta erregistratu zuen aldarazpen ekimena. Hauxe zioen hitzez hitz: "Euskal herriak autodeterminazio eskubidea dauka. Eskubide hau oinarritzen da bere hiritarrek beren estatus politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala askatasun osoz eta demokratikoki erabakitzeko gaitasunean, marko propioa eraikiz edo, zati batean edo osorik, bere burujabetza beste herri batzuekin partekatuz".

Azken hilabeteotan Ekonomi Itun-Hitzarmenaren inguruan "elkartasunik eza", "pribilejioa" eta antzekoak egotziaz egin dizkiguten salaketek pentsarazten digute bidean datorrenak zerikusi handiagoa duela "hutsetik hasteko gogoarekin", Euskadi eta Catalunyaen nazio auziak konpontzeko ahaleginarekin baino.

EAJ-PNVk ulertzen du euskal gizarte osoaren erantzukizuna dela Ekonomia Ituna-Hitzarmena aldeztua, gure Herriaren Eskubide Historikoen adierazpena delako kudeaketa ekonomikoan eta Gizarte Ongizate Estatuan krisialdiei aurre egiten lagundu digulako, erantzukizunean eta gure sare ekonomiko eta sozialaren ezagupenean oinarrituta.

EAJ-PNVk denbora horiek kudeatzeko prest egon behar du. Akordioa lortzeko aukera ote dagoen ala ez ikusteko. Akordiorako borondate politikoa dagoela egiaztatzen bada, bi bide egongo dira. Bata da erreformarena, Konstituzioaren testuan euskal herriaren autodeterminazio eskubidea jasoaz; eta bestea, Lehen Xedapen Gehigarrian jasota dauden eskubide historikoen sakontzea abiapuntu gisa hartzen duena, Euskal herria osatzen duten lurraldeen jatorrizko eta konstituzioa aurreko errealitatearen aitortza abiapuntu hartuta, bere autogobernuaren eguneratzea eta osoko burujabetasunerako aurrerapena zilegi egiten dituen, hiritarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatea baino beste mugarik egon gabe.

Bilatzen dugun alde bikotasun irizpide horrek gidatu behar ditu Estatuaren eta Euzkadiren arteko harremanak; eta, alde aurretik, elkarrekiko hartu diren derrigorrak betetzen direla bermatzeko tresna eta mekanismo juridikoak ezarri behar dira. Hitzarmen irizpide

honek inplikaturik luke Estatuaren ez betetzearen aurrean Euskal herriak itun hori apurtuzat joko lukeela eta gure jatorrizko burujabetzarekiko errespetua bermatuko luketen bide berriak zabaltzeko prozesua hasiko lukeela.

### **2.3.- Legebiltzarraren agindua. Autogobernuari buruzko lantaldea**

Egitasmoan jasotako proposamena betetzeko, Eusko Legebiltzarrean lantalde berezia osatu zen Euskadirentzako estatus berria eraikitzeko oinarriak arautzeko.

Bere arauen bidez, Eusko Legebiltzarrak lantaldeari ahalmena eman zion, lehenengo eta behin "autogobernuaren oraingo egoera" aztertzeko eta bigarren mailan "eguneratzeko oinarriak ezartzeko, Euskal Herriak Legebiltzar honetan ordezkaturik daukan borondate politikoaren adierazpen gisa".

Euskadi Autonomi Erkidego bihurtu zen Gernikako Estatuaren poderioz. Estatuarekiko itunak eta euskal herritargoaren gehiengoaren berrespenak Estatutu horri ematen dio Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru herrialdeetan oinarrizko erakunde-arau izaera, herrialde hauei Euskal Herriaren parte direlako dagozkien Eskubide Historikoak berariaz gorde zituztelarik.

Zentzu horretan, Gernikako Estatutua izan da Euskadiren instituzionalizatzeko prozesua arautzea ahalbidetu duen tresna juridiko politiko. Autogobernuaren hogeita hamasei urte hauek ezer erakutsi badute, hori izan da gure erakundeekiko konfiantzak eta kudeatzeko duten ahalmenak, beren mugen barruan ere, lehenagotik ezagutu ez dugun aurrerapen, ongizate eta gizarte justizia maila altua ekarri dizkigutela.

Nafarroaren kasuan, oinarrizko arau hori LORAFNA –Nafarroako Foru-Erregimena Berrezartzeko eta Hobetzeko Lege Organikoa– izenekoan eta "Foruaren Hobekuntza" izenarekin ezagutzen den legean gauzatu zen. Euskal Autonomi Erkidegoan gertatu ez bezala, ez zen erreferendumean bozkatu, Nafarroako foru erregimenaren izaera berezituaren aitzakiapean.<sup>2</sup>

Erakunde egituraketatik harago, Estatuaren kudeaketa politikoaren ezaugarri nagusia izan da zentralizatzeko eman den etengabeko asmoa, estatu nazio-anitzaren benetako eskakizunetik urrunduz; halaber, estatutuaren garapena argi eta garbi eragoztearekin batera, hainbatetan, bere aurrerapena gobernu ardurak izan dituzten interes eta beharrezanen mende egon da. Estatu esparruko alderdi nagusiek Euskadin izan duten ordezkartza politiko konstituzioaren ikuspegi hau legitimatzeko elementua izan da. Estatuko komunikazio egituren aldetik ezberdinen arteko akordioan oinarritutako

---

<sup>2</sup> Lege egokiera honek betidanik jaso du EAJ-PNVren kontrako irizpidea. 2007 urtean LORAFNA legea aldarazteko egitasmoa aurkeztu zuen "Estatuarekiko harreman politikoaren eredu eta erregimena Nafarroako gizartearen borondate demokratikoari bidea emanez arautu behar duelako baldintzapean". Oraindik egin gabe dagoen aldarazpena.

kontakizuna sortzen saiatu dira, baina soilik konstituzioaren markoaren barruan ematen baldin bada. Argi dago gatazkak bere horretan dirauela.

Estatutuak herriaren erakundetze prozesurako eta autogobernu boterearen hazkunderako izan duen garrantzia aitortu behar den neurri berean, egokia eta zuzena da azpimarratzea akordio politiko horrek urraketak bata bestearen ondoren etorri diren hogeita hamabost urtetan pairatu duen narriatze eta baliogabetzea<sup>3</sup>, Auzitegi Konstituzionalak bere ahalmenez egin dituen berrinterpretazioak eta Espainiar Gobernuak eta Parlamentuak birzentralizatzeko asmotan etengabe onartu dituzten neurriak, hasiera batean Euskal Autonomia Erkidegoari esleitu zitzaizkion ahalmenak aldeakartasunez murriztu izan direlarik.

Antzeman den arazo orokor hau ez da soilik Euskadik eskuduntza gehiago edo gutxiago izan behar ote dituen ezartzea. "Autogobernu" kontzeptu bera da krisi egoeran dagoena, estatutuaren balioa gero eta txikiagoa delako. Praktikan, autogobernuaren narriatzea euskal nazio nortasuna ukatu izanak eragin du. Egoera hori Estatuaren izaera batua indartzeak eragin du, bere "nagusitasuna" ezartzen duelako autonomia estatua "berak eman duelakoan" eta autonomi erkidegoak, eta horien barruan nazio historikoak, botere zentralaren mende dauden erakundeak direlako ustean oinarrituta. Eta irizpide horrek "itun" kontzeptua bera urratzen du. Bere izaeragatik elkarrekikoa, borondatezkoa eta negoziatua izan beharko litzatekeen ituna, hain zuzen.

Irizpide aldaketa honek oraingo estatutu markoa baliogabetzen du, babesik ezari eta erronka berriei aurre egiteko eta, gero eta mundu globalizatuago eta interkonektatuago batean, gure gizartearen izaera bereziari eta bere etorkizunari politika publikoen bidez beharizan eta konpromisoei erantzuteko ahalmen galerari lotzen zaiolako.

Narriatze hau Euskal Herriaren nortasun politiko-juridikoaren aitortzara ez ezik, Estatutuan jaso den nortasun bereziaren errealitatek eratortzen diren ahalmen eta eskuduntzetara ere zabaltzen da, oraingo autogobernua indarra galtzera kondenatuz. Errealitate horrek ulertarazten digu, ezinbestekoa dela, euskal hiritargoaren gehiengoaren borondate politikoaren bidez, Euskal Herriaren eta espainiar Estatuaren arteko harremana "eguneratzea". Euskadirentzako estatus berria erdiesteko garaia dugu.

---

<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrari zentzu honetan bidali zion azken txostenean Eusko Jaurlaritzaren ardurapean egon beharko luketen eskuduntzetan bete gabe daudenak azaltzen dira: 24 gai daude transferitzeko eta 8 daude betepen maila ezberdinetan. Hauek dira esanguratsuenak:

- Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa.
- Portuak, aireportuak, autobideak eta tren bidezko garraioa.
- Espetxeak eta espetxe politikaren betearazpena.
- Maileguak eta bankuak eta aseguruak.

Garrantzitsuak direlako, "Gizarte Segurantza sistema propioaren bideragarritasunari buruzko txostenaren" ondorioak azpimarratzen ditugu. Autonomi Estatutuak argi eta garbi hitz egiten du honetaz bere 18.2 artikuluan: Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren eskuduntza EAERI dagokiola ezartzen du.

### 3.- EUSKADIRENTZAKO ESTATUS BERRIAREN OINARRIAK – ERABAKITZEKO ESKUBIDEA INSTITUZIONALIZATZEA

#### 3.1.- Ibili bai, baina norantz?

Bidegurutze berriaren aurrean aurkitzen gara. Bada garaia Gernikako Estatutua bozkatzerik izan ez zuten belaunaldiek bidean datorkigun garaiari buruzko ikuspegia adieraz dezaten. Gaur egun 54 urtetik gora dutenek baino ezin izan zuten Estatutua berretsi. Nafarroan LORAFNA legea ere ez zuten bozkatzerik izan. Oraindik Europar Batasunean ez geunden aldi batean onartu zen testua, alegia. Estatuak arestian deskribatu dugun politika zentralistaren bidez bere aldetik indargabetu duen agiria.

Urte asko igaro dira Gernikako Estatutuari sorrera eta izaera politikoa eman zizkion adostasuna desagertu zenetik. Ez betetze honen ondorioek eragin kaltegarri sozial eta ekonomikoak ekarri dizkiote euskal hiritargo osoari.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, orain, norako bidea hartu beharko duen? Argi eta garbi, Euskal Nazioaren baieztapenerakoa, gure sortzetiko oinarrietan ezarritako helburuekin bat eginez. Horretarako, ezinbestekoa da denborak zuzentasunez irakurtzen jakitea. Eta interpretazio zuzena egiteko nazioarteari, estatuko politikaren inguruabarrei eta, batez ere, gure herriaren konpromisoari begiratu beharko diogu.

Hausnartze-ariketa hau ez da berria. Gure nagusiek trantsizioaren erronkaren aurrean egin behar izan zuten berbera da, orduko hartan autonomia estatutuaren aldeko apustua egin zutenekoa, alegia.

Zalantzarik gabe, gure herriak etorkizunean egingo duen bideak abiapuntu garrantzitsuak ditu. Politikan adanismoan erortzea itsukeria litzateke, gure artean halakorik ezin du lekurik izan. Ondorioz, eraikiko den guztia lehendik eraikitakoaren gainetik altxatu behar da. Ez dauka zentzurik gure erakundeak eta orain arte lortutako gobernua eraistek eta horren ordez dena berria egiteak.

Nazioarteko egoerari dagokionez eta, batez ere, guri dagokigun Europar Batasunari dagokionez, batasunaren baitan gertatu diren krisi politiko eta ekonomikoek ekarri dute nazio edo herrialdearen burujabetzari eragingo dion edozein aldaketari mesfidantzaz begiratzea. Alderantziz ere, egia da Europaren mendebaldean beren esparrua bilatzen duten nortasun mugimenduen suspertzea ikusi duela eta, ondorioz, ondo daki zein den bere baitan ematen den aldarrikapena. Aldarrikapen horri aurre egiteko mekanismo demokratikoak baliatu beharko ditu, ez baditu bere oinarrizko araeu uko egin nahi.

Europar Batasunak, bere printzipio demokratikoen arabera, zentzuzkoena denez, "barrutik" eginiko zabalkuntza automatikoki aitortu beharko luke, Kopenhageko Irizpideak betetzen dituzten nazioek, beren naziotasun adierazpenaren arabera, onartuak izateko bidea zabalik izan ditzaten, kanpoko herrialdeek duten bezala.

Eskoziako esperientzia, zeinen bidez eskoziar herriak beren nazioaren etorkizuna erabakitzeke eskubidea independentziari "bai ala ez" bozkatuaz baliatu duten, Europar Batasunaren baitan estatu berriak sortzeko aukerak dakartzan sakontze demokratikoaren adibideetako bat da.

Espainiar estatuko panoraman Estatuaren erakunde egituraketak historia hurbileko unerik txarrenetakoa bizi du. Oraingo Estatu ereduak ez da bere nazio errealtate ezberdinak onartzeko gai izan. Catalunyar prozesua da agortuta dagoen Estatu ereduaren paradigma. Horrek ziklo aldaketa bat ekarri beharko du, bi norabidetan joan daitekeena:

- Izan daiteke atzerako urratsak ematen segitzea, Euskadi eta Catalunyak nazio arazoei edozein konponbide ukatuz, eta horrek ez du politikoki ezer konponduko, eta eragingo duen gauza bakarra izango da arazoa seriotasunez konpontzeko epeak atzeratzea.
- Edo bestela, Konstituzioaren aldarazpena edo berrinterpretazioa egitea, Estatu barruan elkarriketa prozesua irekiko duena, une honetatik bertatik hainbat alderdi politikok aldarrikatzen dugun bezala.

EAJ-PNVk bere historia osoan izan duen ezaugarri nagusienetakoa izan da bere idearioan aurrera egiten saiatu dela inoiz bere herritik aldendu gabe. Zatiketak, gatazkak eta etengabeko borrokek ezin gaituzte herri gisa konponbidea bilatzera eraman. Alderantziz, beste talde politikoek eraman dituzten zatiketa eta borroka estrategiek hondoa jotzera baino ezin gaituzte eraman, nazio eraikuntza eraginkorrean aurrera egiteko saiakera guztiak alperrik galduko dituen ezinegonera, alegia.

Zein koordenadatan aurki dezakegu gaur euskal gizartearen gehiengo zabalaren oniritzia jasoko duen topagunea, estatu eta nazioarte mailako politikak bizi dituen garai hauek zuzentasunez interpretatuko dituen?

Euskadiko Autonomia Erkidegoa ez da autonomia erkidego soil bat. Eta hori argi eta garbi utzi beharra dago etorkizunean Estatuekin eman daitekeen akordio politikora begira. Euskadik estatus berria behar du zeinen bidez Euskal Herria Estatu gisa aitortua izango den.

Horregatik, batzuek ondo zehaztu gabe proposatzen duten konponbide federalak ez du balio, elementu "federatu" horiek gaur egungo Autonomi Erkidegoak baldin badira. Euskal nortasun berezitua ez datza soilik ezaugarri kultural batzuetan edo hizkuntza berezitu batean, baizik eta hiritargoaren gehiengo batek Euskal Herria Nazio jotzen dutelako errealtatean, eta hori ez da beste Autonomia Erkidegoetan gertatzen, Catalunyan eta, neurri batean, Galizan salbu.

Euskadi ezin da beste autonomia erkidego bat izan edo, sozialisten bertsioaren arabera, beste estatu federatu bat izan. Fikzio horrek ez dauka sostengurik.

Europar Batasunaren baitan beste herrialde batzuk daude, Erresuma Batua eta Belgika kasu, beren nazio aniztasuna konplexurik gabe onartzen eta aitortzen dutenak. Espainiar estatuak Euskal Nazioa badela aitortu behar du.

Edozein begirada inpartzialek aukera hori ez luke zentzugabekeriatzat joko eta bai, guztiz alderantziz, konponbidea eraikitzeko ate irekitzat.

Nazio aitortza ezin da erretorikara mugatu. Estatuetik harremanaren alde bikotasuna suposatu behar du. Izan ere, harreman politikoen alde bikotasun hori harago doa, itun politiko berria beteko delako bermea delako.

Ezin diogu gehiago eutsi teoriar arbitro neutrala dena –Auzitegi Konstituzionala– alderdi batetik soilik –Estatuko erakunde zentralak– izendatua izateko printzipioari, behin eta berriz alderdi partzial baten pentsamoldearen arabera jardun dezan. Beharrezkoa da auzitan dauden gai guztiak euskal ordezkari eta Estatu batuko dituen maila politikoan jorratzea eta akordioak adostasunaren bidez bilatzea.

Alderdi-bitasun hori erabili behar da, baina ez bakarrik eskuduntzen ingurukoak ebazteko, baizik eta baita alderdi bien artean itundu beharko den "oinarrizko araudiari" dagokiona erabakitzeke. Ezin da onargarria izan legeak edo gobernu zentralaren dekretuak Estatuaren klausulei gailentzea, eta bide horretan autogobernua mugatzea. "Oinarrizko araudi" kontzeptua bera politikoki eztabaidagarria da eta burujabetzaren sistema bertikaletik dator, Kanadan bezala, estatuz gaindi dagoen erakunde edo Estatuarekiko mendekotasun harremanetik.

Bere kasuan, halako batean akordioa lortzerik ez balego, arbitrajeko erakunde berezia eratu beharko da, zeinetan kideak alderdi bien artean eta ekitatiboki aukeratu diren.

Nazio izaeraren aitortzak berarekin ekarri beharko du sinbologia zehatza eta nazioarte mailako aitortza. Nazioarte mailako eztabaidaguneetan gure presentzia bermatuz, osoko eskubidea duten kide gisa, estatutuen arabera aukera izango dugun tokian, UNESCO erakundearen esaterako, edo euskal selekzioak kirol esparru guztietan parte hartzea, edo begirale gisa izaera mugatuko presentzia dugun besteetan, hori ere badelarik gure gizartearen gehiengo zabal batek hainbatetan egin duen eskaria. Nazio aitortza honek aurreikusi behar du Euskal Autonomia Erkidegoaren dinamikari eusten ez dioten Nafarroarekin eta Iparraldearekin harremanetan egoteko eskubidea eta haiekin hainbat arlotan akordio askeak hartzekoa.

Iparraldearekiko eta Nafarroarekiko egongo den lankidetzaren hurbileko horretan, erakundeekin eta eragile sozial, ekonomiko eta kulturalekin, Basque Country estrategia nazioartean eta ahal denik eta esparru gehienetan bultzatzea. Ahalegin honetan euskal

diaspora instituzionalizatua osatzen duten elkaratekiko eta banaka ere Euskal Nazioa mundu mailan indartzen lagundu ahal duten euskaldunekiko harremana indartzea.

Autogobernuaren funts materiala berriro zehaztu beharra dago, eskuduntza eskusiboak benetan jatorrizkoak izan daitezzen eta kanpoko erabakien mende egon ez daitezzen. Era berean, beharrezkoa izango da orain arte erabaki politiko hutsen eraginez auzitan jarri diren beste autogobernu esparru batzuk geureganatzea, orain arte garatu ez den eskuduntza markoa osatuko bailukete.

Estatus berria, alde bikotasun ekonomikoaren esparrua sostengatuko litzateke, Ekonomi Itun-Hitzarmenean eta Itun-Hitzarmenei dagozkion Kupoetan. Hurrengo garaietarako proposatzen dugun ereduari, hori da sistemarik egokiena. Alderdi batetik, Estatuak, zein euskal esparrutik ondo ezagutzen ditugu Itun-Hitzarmenaren mekanismoak, eta berez derrigortzen duten alde bikotasuna ondo egokitzen dira esparru bion arteko harreman politikoan agindu beharko lukeen funtzionamenduarekin. Ekonomia Itun-Hitzarmenaren balioa zalantzan jarri ezina da Europa mailan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak planteatu zuen judizio aurreko arazoaren aurrean Luxenburgoko Justizia Epaitegiaren ebazpenean aitortu zen gisa.

### **3.2.- Erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzea**

EAJ-PNVk bere buruari ezarri dion helburua da Herri hau euskal abertzaletasunetik lideratzea. Oinarri hori zabaltzeko eta indartzeko helburua daukagu gure nazio egitasmoarekiko atxikimendu maila igoko duen berrikuntza prozesua ezarriz. Ezinbestekoa da ibilbide hori alderdiaren bere sorreratik dituen oinarri ideologikoekin bat eginik, herri gisa dagozkigun eskubideak eraginkortasunez defendatuz.

EAJ-PNVk errespetatu egiten du Euskal Herrira atxikitzea erabakiko duten herrialdeen erabakitzeko gaitasuna eta atxikimendu askea, hala erabakitzen badute, eta horretarako inplikaturik da behar besteko baldintza juridiko-politikoak sortuz ekintza hori askatasun eta demokrazia osoz burutua izan dadin .

Era berean aldeztu du Trebiñu eta Turtziozko barrendegietako herritarrek Euskadin integratzeko duten eskubidea, askatasunez eta demokratikoki hala erabakitzen badute.

Halaber, ezaguna da Euskal Herria existitzen dela eta erabakitzeko duen eskubidea ukatzen dutenen jarrera politikoa, zilegitasuna Espainiar edo Frantziar Konstituziotik soilik hartzen duen hiritartasun kontzeptua aldarrikatuz, funtsean Espainian edo Frantzian segitzeko formula politikoa bilatzen dutelarik, hori bai, "berezitasunean" oinarrituta.

Ukapenaren eta desitxuratzearen aurrean, ezinbestekoa da euskal nazio eraikuntzaren ikuspegi dinamiko eta berriztatzailearen aldeko apustua egitea, ezinbestean bi urrats eman beharko dituen: lehenik eta behin, erabakitzeko eskubidearen instituzionalizatzea eraginkortasunez hurbilduko gaituzten baldintza politiko eta sozialak sortzea, eta,



bigarren tokian, euskal Nazioa osatzen duten herrialde guztien egokitzapen prozesua testuinguru konplexuago, anitzago eta zabalago batean burutzea.

EAJ-PNVrentzat, politika publikoen kudeaketaren exigentzia gorena eta erabakitzeko eskubidea dira txanpon baten alde biak. Politika publikoen justizia sozialean oinarritutako kudeaketa eraginkorra berezko baldintza da Herri eraikuntzarako. Gernikako Estatutua onartu zenetik hona, EAJ-PNVk lideratu du euskal gizarteak talde aurrerapenean eta justizia sozialean egin duen bidea.

Trantsiziotik hona, Euskadin Gobernu ardurak diren maila guztietako lidergo nagusia EAJ-PNVk hartu du bere gain. Kudeaketa horren emaitzak argiak dira beste errealitate politikoaren egoerarekin alderatuta.

Egin den ibilbidearen, kudeaketa errearen eta lortutako emaitzen bidez egiaztatuta geratu den esperientziaren oinarrian, EAJ-PNVren egitasmo politikoa lau konpromiso handiren gainean eraikitzen da, pertsona helburu eta lehentasun joz:

- Konpromiso etiko, demokratiko eta politiko argia bakearekin eta bizikidetzarekin. IRAGANEAN, orainean eta etorkizunean konpromiso etiko eta integrala pertsona guztien giza eskubide guztiekin.
- Egiteko modu batekin hartutako konpromisoa, elkarrizketan, lankidetzan, gardentasunean, zintzotasunean, kudeaketa publikoaren eraginkortasun eta efizientzian oinarrituta. Erakundeen arteko elkarrizketa eta argitasuna, esparru publiko eta pribatuaren arteko aliantza batean elkarrekin eta hiritargoarekin.
- Pertsonen ongizatea helburu duten gizarte politikekin eta aurrerapen ekonomikoarekin konpromisoa. Gizarte politiken eta ekonomikoaren kudeaketa aurrerakoiaren emaitzak eta hortik lortu den esperientzia, hartu dugun konpromiso horretara lotu behar gaituztenak.
- Konpromiso eraikitzailea eta erabakitzeko eskubidearekin bateragarria. Erabakitzeko eskubide demokratikoa gizarte atxikimendu eta parte hartzearen bidez eta ibilbide eta egitasmo serio eta zorrotzen bidez eraikitzeko eta islatzeko borondate irmoa.

### **3.3.- Estatus berrirako abiapuntuak**

Prozesu honetan garrantzitsua da Eusko Legebiltzarrean sortu den Autogobernuari buruzko lantaldeak urratsak ematen segitzea euskal eragile politikoaren artean ahalik eta adostasunik zabalena erdiesteko. Lantalde hau martxan jarri eta urte bete eta erdi geroago, talde politiko ezberdinek eztabaidagune honetan erakutsi duten jarrerak ezinezko egin dute 2015 urtean kontsulta egiteko genuen aurreikuspena betetzea. PPren

aldetik edozein aldarazpen errazteari uko egin izanak, sozialisten aldetik Konstituzioaren aldarazpena egin arte autogobernuaren eguneratzeari ez ekiteko erakutsi den jarrerak, edo Ezker Abertzalearen aldetik, "catalunyar bidearen" alde daudela erakusteko interes handiagoa dutelako, proposamenik zehaztu ez izanak orain arte eragotzi dute oinarri sendoak behar dituen adostasunak aurrera egitea. EAJ-PNVk ez du xede hori bertan behera utzi, eta hemendik aurrera eta etengabe elkarrizketarako eta negoziaketarako dituen gaitasunak biderkatuko ditu, Euskadiko hiritargoarekin hartu ditugun konpromisoak bete ahal izateko.

Euzko Alderdi Jeltzaleak akordio integratzailea bilatzen du, Euskadirentzako marko juridiko-politiko berria egingarri egingo duena. 1979an legez onartutako estatutuetatik gaur egunera arte, alderdi estrategikoetan adostasun puntu batzuk daude, EAJ-PNVren aburuz beren potentzialitate guztia mantentzen dutenak, errealitate berri hori gehiengo sozial eta politiko batean egituratzeko.

Hogeita hamasei urte geroago, mahai gainean daukagu estatus politikoari buruzko eztabaida. Oraingo honetan ETArrik gabe. Beharrezko ematen du azalpen batzuk ematea, iraganeko huts egiteak eta urte hauetan guztietan eman diren aldaketa sozialak gogoan.

Gernikako Autonomia Estatutuak suposatu izan duen zati bateko egituraketa oso aurrerapauso handia izan da, Ezker Abertzalearen aldetik leherrarazteko saiakera behin eta berriz egin den arren eta Estatutuaren onarpenak haustura prozesuaren ahultzea esan nahi duela esaten duen kontakizuna finkatzen saiatu den arren, zeinen bidez indar abertzaleak gatazka bizirik mantentzeko batu behar direla eta horrela Estatuari erantzuna emango zaiolako baieztapena egiten den. EAJ-PNVri nazio eraikuntzaren paralisia egozteko egiten den tesia faltsua da. Indarkeriak nabarmen ahuldu du euskal nazio eraikuntzaren aldeko indar soziala.

Definizio estrategiko partekaturako dagoen arazo handietako bat da euskal abertzaletasunaren baitan ematen diren egitasmu sozio-politikoaren arteko antagonismoa. Indarkeriaren garaia gaindituta, ezinbesteko gertatzen da Euskal Herria subjektu politikoan eta erabakitzeke duen eskubidean sinesten duten indar politikoek estrategia bat partekatzea zoru etiko-demokratiko batean, gutxieneko helburu batzuetan eta helburu horiek lortzerako bidean jarriko gaituzten prozesuen erritmoetan oinarrituta. Ahaztu gabe euskal nazio egitasmua euskal gizartearen dinamika endogenoaren inguruan egituratu behar dela.

Zentzu horretan, EAJ-PNVk adierazten du Eusko Legebiltzarrak 2004ko abenduan gehiengo batez onartu zuen Euskadiko Autonomi Erkidegoaren Estatutu Politikoak eta Loiolako akordio politikoak (2006) beren barnean aurreikusten dituztela estatus berriaren planteamendu adostua lantzeko oinarriak.

### ➔ Partekatu beharreko konpromisoak:

- 1.- Partekatu beharrekoa da printzipio demokratikorik oinarritzkoenak hiritargoaren gehiengoari balio arautzaile garrantzitsua ematea exijitzen duela, eta horrek

berarekin dakarrela dagokien eragile politiko eta instituzionalek borondate horren adierazpen argiari erantzuna emateko doikuntzak negoziatu beharko dituztela.

- 2.- Partekatu beharrekoa da euskal gizartea bere etorkizuna erabakitzeko, galdetua izateko eta demokratikoki adierazitako borondatea errespetatua izateko eskubidea eta gaitasuna duen Herria dela.
- 3.- Partekatu beharrekoa da euskal gizartea nortasun anitzek osatzen dutela eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta, eszenatoki demokratikoan elkarrekin bizi behar dutela.
- 4.- Partekatu beharrekoa da gatazkak konpontzeko metodoa elkarriketan, negoziaketan, indar politikoaren arteko akordio zabalenetan eta, halakorik ezean, gizartearen gehiengoaren adierazpenean oinarritzen dela.
- 5.- Partekatu beharrekoa da prozesu demokratiko orok inklusioa behar duela eta ez bazterketa; baldintza berdintasuna behar du, eta horrek esan nahi du ez duela mehatxurik izan behar eta tradizio politiko guztiek legezko adierazpena izan dezaketela.

➔ **Estatus berriaren ezaugarri nagusiak:**

- A) Euzkadi Nazioaren aitortza. (Euzkadi Autonomia Erkidegoaren Estatutu politikoaren Atarikoak: lehen 3 paragrafoak)<sup>4</sup>. (Elkarrizketarako eta akordio politikorako Oinarriak. Loiola)<sup>5</sup>
- B) Erabakitzeko eskubidea.(13. artikulua)<sup>6</sup>

<sup>4</sup> "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa". Atarikoak.

"Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna duen herria da, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurraldetan du bere leku geografikoa.

Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzeko, Eusko Legebiltzarrean 1990eko otsailaren 15ean gehiengo osoz onartu zen bezala, eta nazioartean aitortuta dagoen herrien autodeterminazio eskubidearekin bat etorri, besteak beste Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean onetsita baitago.

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen erabilera honela gauzatzen da: Euskal Herria egun antolatua dagoen hiru eremu juridiko-politikoetako herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko kontsultatuak izateko duten eskubidea errespetatuz, hau da, egungo Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren erabakia errespetatuz, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren erabakia errespetatuz eta Iparraldeko euskal lurraldeetako herritarren erabakia –Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrena– errespetatuz."

<sup>5</sup> "Elkarrizketarako eta akordio politikorako oinarriak". Loiola.

"Iotura sozialek, linguistikoek, historikoek, ekonomikoek eta kulturek osatzen duten errealtatea badela onartzen dugu, Euskal Herria deitzen dena eta Espainiar Estatu barruan Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoan eta Frantziar estatuan Lapurdi, Zuberoa eta Baxe Nafarroan gauzatzen dena."

<sup>6</sup> 13. artikulua.- Erabakitzeko eskubidea demokraziaz erabiltzea

"1.- Euskal herritarrek askatasunez erabakitzeko eskubidea demokraziaz erabiltzeko, hortik dator eta Estatutu honen zilegitasun demokratikoa, euskal herritarrei erreferendum bidez kontsulta demokratikoak egitea arautu eta kudeatzeko ahala daukate Euskadiko Erkidegoko instituzioek, bai beren eskumen-eremuko gaietarako, bai beste euskal lurralde eta giza talde batzuekin izan nahi

C) Erabaki esparruak (hitzaurrearen 3. paragrafoa)<sup>7</sup>

D) Atxikimendu askea. (12. artikulua)<sup>8</sup>

E) Arbitraje organoak. Aldebiko Batzordea. Gatazkak ebazteko epaimahaia (15. eta 16. artikulua)<sup>9</sup>

---

dituzten harremani dagokienez, bai eta Espainiako Estatuarekiko eta bertako autonomia-erkidegoekiko harremani eta Europako eta nazioarteko eremuko harremani dagokienez ere.

2.- Euskadiko Erkidegoko instituzioek, Eusko Legebiltzarren lege baten bidez, erreferendum bidezko kontsultarako eskubidearen erabilera arautuko dute beren lurralde-eremuan, eta, horretarako, erreferendum-motak, kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura, emaitzak baliozkoak izateko baldintzak eta emaitza horiek antolamendu juridikoan sartzea ezarriko dituzte.

3.- Euskal herritarrek, berariaz egin zaien kontsultan beren erabaki askea demokraziaz erabilia, beren borondate argi eta zalantzarik gabea –baliozkozat jotako botoen gehiago osoan oinarritua– adierazten dutenean Estatutu honetan arautzen diren Espainiako Estatuarekiko harreman politikoaren eredia eta araubidea osorik edo funtsean aldatzeko, baita Europarekiko eta nazioartearrekiko harremanak aldatzeko ere, euskal instituzioek eta Estatuok beren buruak behartutzat joko dituzte euskal gizartearen borondate demokratikoa adostasunez gauzatzeko aukera emango duten baldintza politiko berriak ezartzearen alde negoziazio-prozesu bat bermatzera."

<sup>7</sup> "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa". Atariko, 3. paragrafoa.

"Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen erabilera honela gauzatzen da: Euskal Herria egun antolatua dagoen hiru eremu juridiko-politikoetako herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko kontsultatuak izateko duten eskubidea errespetatuz, hau da, egungo Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren erabakia errespetatuz, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren erabakia errespetatuz eta Iparraldeko euskal lurraldeetako herritarren erabakia –Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrena– errespetatuz."

<sup>8</sup> "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa". 12. artikulua.- Elkartasun askeko araubidea.

"Euskadiko Erkidegoko herritarrek, beren autodeterminazio-eskubidea erabiliz eta Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian jasotako eskubide historikoak errespetatuz eta eguneratuz, Espainiako Estatuarekiko harreman politikorako araubide berezi baten bidez iristen dute autogobernua, elkartasun askean oinarrituta. Euskadiko Erkidegoak eta haren ordezkari-instituzioek elkarrenganako errespetutik eta elkarren onarpenetik abiatuta ezartzen dute elkartasun askeko harreman hori; nolahi ere, berrazter daitekeen harremana da, Estatutu politiko honetan ezarritakoaren arabera, Estatutu hau izango baita oinarritzko arau instituzionala aipatutako ondorioetarako."

<sup>9</sup> "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa". 15. eta 16. artikulua.

15. artikulua.- Euskadi-Estatua Bitariko Batzordea

"1.- Euskadi-Estatua Bitariko Batzordea sortzen da, Estatu Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak izendatutako ordezkari-kopuru beraz osatuta.

2.- Euskadi-Estatua Bitariko Batzordea orokorrean gobernuen arteko lankidetzako instituzio-harremanez arduratuko da, eta harreman horiek harmonizatuko ditu. Zehazki, honako eginkizunok izango ditu:

a) Oinarritzko eskubide eta betebeharren garapenari eragiten dioten lege-proiektuak aztertu eta horien gaineko txostenak egitea.

b) Gorte Nagusietan edo Eusko Legebiltzarrean araugintzako lankidetzarako errekerimenduak kudeatzea, legeak, arau-xedapenak edo lege -indarreko egintzak izapidetzean Estatuaren eta Euskadiko Erkidegoaren arteko harremanen eta eskumen-banaketaren araubidea urra daitekeela nabaritzen bada.

c) Kanpo-harremanen arloko jardueren koordinazioa eta jarraipena.

d) Estatutu honen arabera legozkioken eginkizun guztiak.

3.- Euskadi-Estatua Bitariko Batzordeak bere eginkizunak betetzeaz gainera, Estatutu honetan aurreikusitako politika eta gai zehatzak koordinatzeko beste erakunde bereziek beraiei dagozkienak beteko dituzte."

16. artikulua.- Euskadiren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegia

"Konstituzio Auzitegiaren antolamendu juridiko eta prozesalerako neurri berezi hauek ezartzen dira Euskadiko Erkidegoari dagokionez:

1.- Konstituzio Auzitegian sala berezi berri bat sortzen da, Euskadiren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi modura eratuko dena; Euskadiko Erkidegoko instituzio eta agintekin zerikusia duten konstituzio-kontrakotasuna adierazteko prozedurez eta konstituzio-gatazkez arduratuko da, eta horretarako bereganatu egingo ditu aipatutako ahalen artean Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurari dagozkionak.

2.- Euskadiren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegi modura eratutako Konstituzio Auzitegiako sala berezia sei magistratuz osatuko da. Lehenengo hirurak Konstituzio Auzitegiak izendatuko ditu osoko bilkuran, Senatuak proposatuta, auzitegiako kide diren magistratuen artean. Beste hirurak izendapen berrikoak izango dira; Erregek edo Erreginak izendatuko ditu, Eusko Legebiltzarrak

F) Materia-funtsa. Eskuduntzak.

G) Ordezkaritza Europan (65. artikulua)<sup>10</sup>

Hasierako hitzak hartuko ditugu agiri hau amaitzeko. "Batasuna eta Indarra". Batasuna eta indarra beharko ditugu Euzkadiren nazio eraikuntzarako bidean urrats berriak eman ahal izateko. Oso urrun heldu gara gure Aberriaren askatasuna lortzeko bide honetan. Baina oraindik ibilbide luzea geratzen zaigu herritarrek erabaki beharko duten herri egokiera aurkitu arte. Geratzen zaigun bide zatia ez da erraza izango, gure aurreko belaunaldietako emakume eta gizonek euskal aberriaren alde egin zuten lana abalatzten duten 120 urteak ere errazak izan ez ziren modu berean.

Iragan uztailean Gernikan izenpetu genuen konpromisoan berretsi genuen bezala, *"Gure jarduketa politikoa da euskal gizarte osoari eskaintzen diogun zerbitzua. Aberria herrialdea baino gehiago da. Aberria ere badira aberri kontzeptuarekin identifikatzen diren pertsonak. Pertsonak dira, beraz, gure ahaleginaren hartzaille nagusiak. Ez dugu ahazten gure eginkizun nagusia dela euskal emakume eta gizonen zoriontasunaren alde lan egitea. Beren duintasun eta segurtasunaren alde, bizikidetzaren alde, pertsona guztiek taldeka eta banaka merezi duten aurrerapen eta arrakastaren alde"*. Alderdiak eta bere oinarri sozialak bere sorreratik aldarrikatu dituzten ardatz ideologikoak bertan behera utzi gabe.

Hona hemen gure konpromisoa. Batasuna eta Indarra, testuinguru politiko berriak ekarriko dizkigun erronketan bete betean asmatzeko.

---

*proposatuta, euskal juristen artetik, eta auzitegiko magistratuek besteko gaitasuna izan beharko dute jurista moduan. Sala bereziko lehendakari, bertako magistratu bat arituko da, txandaka, eta kalitateko botoa izango du.*

*3.- Eskumen-gatazka negatiboaren prozedura berri bat ezartzen da Konstituzio Auzitegirako; prozedura horretan Eusko Jaurlaritza izango da auzi-jartzaille eta Estatuko Gobernua organo errekeritu, Konstituzioak zein legeek Euskadiko Erkidegoari buruz ematen dizkioten eskurantzak erabiltzeko eskumenik gabekotzat jotzen duenean bere burua azken horrek. Auzitegiaren epaiak errekerimendua bidezkoa ez dela edo, aitzitik, bidezkoa dela ebaztuz lezake, eta azken kasu horretan epe bat ezarriko du errekeritutako eskurantza epe horretan erabiltzeko.*

*4.- Euskadiko Erkidegoko aginte eta instituzioek konstituzio-akzio bat aurkeztu ahal izango diote Gatazken Auzitegiari, parte izan ez diren prozesuetan emandako epaiak euskal autogobernuari eragiten ote dioten ebazteko. Akzioa idazki bakar baten bidez izapidetuko da epai horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean, epaiak Euskadiko Erkidegoaren eremuan ondorioz sorrarazten ote duen erabaki dezan Euskadiren eta Estatuaren arteko Gatazken Auzitegiak.*

*5.- Estatutu politiko honen arabera, euskal instituzioak parte diren konstituzio-prozeduretan era berezian bermatu behar da aginteen arteko orekaren printzipioa, hala, Estatuko Gobernuak euskal instituzioek onartutako arau-xedapenen eta erabakien aurka egiten duenean, xedapen eta erabaki horiek berehala eta besterik gabe etenda gera ez daitezela, Konstituzioko 161.2 artikulua orokorrean aurreikusi bezala."*

<sup>10</sup> "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa". 65.2 artikulua.

*"2.- Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritik, Euskadiko Erkidegoak zuzeneko ordezkariak izango du Europar Batasuneko organoetan. Horretarako, Espainiako Gobernuak behar diren bideak irekiko ditu Eusko Jaurlaritzak Batasuneko instituzioetako erabakiak hartzeko prozeduretan modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezan, erabakiok Erkidegoaren eskumeneko gaiak eragiten badiete.*

*Era berean, euskal instituzioen ordezkariak Estatuak Europar Batasuneko Ministroen Kontseilurako izendatuko dituen ordezkarietako kide izango dira, oso-osorik Erkidegoaren eskumenekoak diren politika publikoei buruzko gaiak direnean kontseilukoak."*